

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2022ko urtarrilak 21 • 1213. zenbakia



ANTZERKI LABORATEGIA BIZITZAZ GOZATZEKO ERA BERRIA

MERKEALDIA

+ 2. BETAURREKOAK OPARI

Kontsumitzailearen laguntzarekin erabakitak.



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiópticas.com 



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgia,
Periodontzia, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgia,
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Aurten Institutoa, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

**Oharra**

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingaririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

“Miopia epidemia ‘isila’ ematen ari da, ume eta gazteen erdiei eragiten diena, eta herritar guztien %40ari. Horren zergatia telefono eta tabletetan dago, objektu horiek begia etengabeko tentsioan jartzen dutelako fokatzeko ahaleginean. Begiko globoa ez dago bere ohiko distantzia mailan eta, hori konpentsatzeko, tenkatu egiten da eta luzapen horrek miopia sortzen du, urrutiko objektuak lauso ikusteko. Fokuari eusteko ahalegin horretan begiek askoz gutxiago kliskatzen dutenez, sikatu egiten dira eta isuriak eragiten. Gorputzarekin gertatzen denaren antzera, lehen begiak hazteari lagatzen zion nerabezaroaren amaieran. Baina orain hazten jarraitzen du, gainahalegin sistematiko horren eraginez. Eta ematen den luzapen milimetrikoko horrek begiko globoari duen pilota itxura aldatu eta olibarena ematen dio. Pandemiak larriagotu egin du egoera eta, Txinako ikertzaile-talde baten arabera, ikusmen-arazoak hirukoiztu egin dira seitik zortzi urtera arteko umeen artean”.

ERIC CHOW, optometrista

“Kapitalismo neoliberalak ekarri digun askatasunaren ideia da edozer gauza egin dezakegula izan ditzakeen ondorioei erreparatu gabe. Horren arabera, gereziak abenduan jatea askatasuna da; baina, ikuspuntu biologiko batetik, sasotik kanpoko zeozer jateak ez du inongo zentzurik eta kutsatzea dakar. Zer da ondo bizitzea? Batzuentzat, ez sukaldatzea, ez garbitzea eta Netflix ikustea gau osoan. Eta horrek dakar oso garesti ordaintzea janaria eta entretenimendu merkeak izateko. Gizakiaren aurretik kontsumista izatea ipintzen badugu hilda gaude, bizirik baina hilda. Esaten dutenean orain gutxiago ordaintzen dugula janariarengatik, hori ez da horrela: supermerkatuan ez dugu ordainduko, baina bai gure zergekin, enpresetako fiskalitatea edo garraio-kostoa gutxituta. Erosoago bizitzeko planeta birrintzea erabaki dugulako”.

CAROLYN STEEL, arkitektoa**Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera****NUNDIK NORA? -** Nondik? “Nundik nora habill hi egun guztian?”.**NUNDIK NORAKO.-** Zer, adierazteko. “Nundik norako diruekin jarabik gure andriak hainbeste dotoretasan?”.

Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo
ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
Maitane Campos eta
Malen Illaramendi
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
Ekhi Belar
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
8.150 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





Jendaurrean ipini dute Plan Orokorren berrikuspenaren aurrerapen-proposamena

>>> Aste honetan egin dute publiko Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) berrikuspenaren aurrerapen-proposamena. Jendaurrean ipini duten dokumentu hori diagnostiko- eta partaidetza-prozesuak egin ondoren idatzi da. Eibartarrek webgunean kontsultatu dezakete edo, bestela, haren laburpen bat ikusi Errebal Plazia eraikinean jarritako paneletan. Aurreratu dutenez, otsailean hiru informazio-saio ireki egingo dira, herritarrei dokumentua aurkezteko.

Alkatetzatik azaldu dutenez, “nahiz eta legeak behartu horrelako dokumentuak herritarrei gutxienez bi hilabetez erakustera iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ditzaitez, Eibarko Udalak erabaki du Aurrerapenaren proposamena jendaurrean jartzeko epea hiru hilabetekoa izatea eta, horrela, apirilaren 11ra arte egin ahal izango dira ekarpenak”.

Aurrerapenaren dokumentua eta hasierako dokumentu estrategikoa eskuragarri egongo dira udal webgunean (www.eibar.eus) bai eta HAPOren berrikuspenaren webgunean ere (www.planorokorra-eibar.eus). Halaber, modu presentzialean kontsultatu daiteke, Hirigintzako udal saileko bulegoetan. Bestalde, Errebal Plazia fun-

tzio anitzeko eraikinaren plaza estalian azalpen-panel batzuk jarri dituzte, modu bisualean, HAPO berriaren proposamena laburtuta ikusi nahi dutentzat.

Azalpenak emateko hitzaldiak
Horren osagarri, otsailean, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idatzi duen taldeak azalpen-hitzaldi batzuk emango ditu. Lehenengo saioa otsailaren 1ean izango da Armeria Eskolan; bigarrena otsailaren 8an, Coliseo antzokian; eta hirugarrena otsailaren 15ean Beheko Tokian. Hitzaldi guztiak 18:00etan izango dira, eta edukiera murriztua edukiko dute, indarrean dauden osasun-neurriak bezelako. Gainera, beste azalpen osagarriaren bat nahi dutenek hitzordua eskatu ahaliko dute Plana idatzi duen taldearekin bilerak izateko. Hitzordu horiek HAPOren berrikuspenaren webgunearen bidez (www.planorokorra-eibar.eus) eskatu ahal izango dira.

Aurrerapen-proposamena dokumentuari buruz egin nahi diren iradokizunak eta alternatibak ohiko administrazio-bideetatik aurkeztu beharko dira, alegia, tramitazio elektronikoen bidez edo udal webgunearen bidez (www.eibar.eus), edo modu presentzialean Pegorako bulegoetan.

Iparragirrek Elkoroiribe ordezkatzeko du Untzaga jubiletxean

>>> Jesus Mari Iparragirre izendatu dute Untzagako jubiletzeko zuzendari, eguazten arratsaldean egin zuten bazkideen batzarrean hala erabaki eta onartuta. Horrela, hamaururteztatik Untzagako jubilatutako zuzendari karguan egon den Felix Elkoroiribek orain arte eraman duen lekukoa eskuz aldatu da.

Horrekin batera, aurreko urteko balantzea aurkeztu zuten bazkideen aurrean eta urtean zehar egingo diren jardueren berri ere eman zuten.



Kirol instalazioei buruzko iritzia jasotzeko prozesua abiatuko dute

>>> Udal Kirol Patronatuko abonatuaren artean parte-hartze prozesua jarriko du abian Udalak, inkesta eta galdetegi baten bidez, Patronatua osatzen duten kirol-instalazioei buruz (Ipuruako eta Orbeako kiroldegia eta Unbeko kiroldegia) herritarren iritzia jasotzeko, eta baita Ipuruako kirol-instalazio berrien proiektuari buruz ere.

Parte-hartze prozesu horren berri eman zuten atzo goizean Jon Iraola alkateak, Ander Curiel Kirol zinegotziak eta Felipe Zamakola Kirol Patronatuko zuzendariak. Esandakoari jarraituta, prozesu horrekin Gobernu Taldeak erantzun nahi dio Eibarko Kirol Mahaiak planteatutako erabakiari, “hau da, Patronatuko erabiltzaileen (10.000) iritzia jakitea herriko kirol ins-

talazioen egungo egoerari eta etorkizunari buruz. Gaur egun Patronatuak dituen abonatuaren kopurua kontuan hartuta, galdetegi honek nahi duten guztiak parte hartzeko aukera emango du”.

Azken hilabeteetan, Kirol Mahaiak hainbat bilera egin ditu eragile instituzionalekin eta Eibarko kirol elkarte eta klubekin etorkizuneko instalazioetarako planak zehazteko eta orain abonatuaren iritzia jakin nahi da.

Parte-hartze prozesua bi modutan egingo da. Batetik, abonatu guztiei mezua elektronikoki baten bidez bidaliko zaien inkestari erantzun ahal izango zaio. Eta, bestetik, inkesta hori paperean bete ahal izango da Patronatuak Ipuruan, Orbean eta Unben dituen instalazioetan.



Udalak herriko ostalari eta merkatarientzako formazio-plana jarri du martxan, TicketBAI programara egokitu daitezzen

>>> Eibarko Udalak herriko merkatarie eta ostalarietara zuzendutako formazio-plana jarriko du abian, TicketBAI programara egokitu daitezzen. Programa 2022ko uztailaren lehen sartuko da indarrean Gipuzkoan. Plana Gipuzkoako Merkatarien Federazioarekin batera egingo da eta hoguei bat komertzioak parte hartu ahaliko dute (kopurua handitu ahaliko da, eskari gehiago badago). Horretarako, Udalak 7.600 euro bideratu ditu.

Formazioa bi erataratu egingo da, taldean eta banan-banan. Lehen modalitatean, parte-hartzaileek TicketBAI programa garatzeko zer ekintza egin behar diren aztertu eta ezagutu ahaliko dute. Bigarrenean, banan-banakako formazioarekin, sistema ezartzeko bidea aztertuko da eta laguntza emango da programa parte-hartzaileen berezitasunetara egokitzeko.

Formazioa doakoa izango da eta otsaila-apirila bitartean egingo da. Taldekako prestakuntza zortzi ordukoa izango da eta banakakoa lau ordukoa saltoki bakoitzeko.

Aurreratu dutenez, Udala eta Gipuzkoako Merkatarien Federazioa gure herriko mer-

katariekin kontaktuan ipintzen hasi dira, programa honen berri eman eta parte hartzera gonbidatzeko.

Formazio honetan parte hartu nahi duten saltokiak Gipuzkoako Merkatarien Federazioarekin jar daitezke harremanetan, 943206669 telefonora deituz (Iñaki Etxanizengatik galdetu) edo honako helbide elektronikoaren bidez: empleo@fmg.com

TicketBAI hiru foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak partekatzen duten proiektua da, eta helburua hainbat betebeharrak legal eta tekniko ezartzea da. Hala, TBAI indarrean sartzen denetik aurrera, jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek fakturazio-software bat erabili beharko dute, baldintza tekniko batzuk bete beharko dituen.

Sistema berriari esker, foru-ogasunek zergadunen jarduera ekonomikoaren diru-sarrerak kontrolatu ahal izango dituzte eta, bereziki, azken kontsumitzaileei ondasunak entregatzen edo zerbitzuak ematen dizkieten sektoreetako jarduerenak, neurri handi batean eskudirutan kobratzen direnak.

0292 zenbakiak eramango du Amañako jaietako Gabonetako zozketako saria

>>> Aurreko zapatuko ONCE elkarteko zozketaren azken lau zenbakiak egin zuen zenbakiaren jabearentzat izan da Amañako jaietarako Gabonetako saria. 0292 zenbakiari egokitu zaio labadora, ontzi-garbigailua eta telebista, hirurak pack batean, biltzen zituen sari hori.

Amañako jaietakoek beste zozketa baterako errifak ipini dituzte salgai: Aste Santurako zozketa horretan euro ba-

tengatik bi zenbaki eskuratu daitezke. Apirilaren 12ko ONCEren azken lau zenbakiak bat datorrena izango da 1.100 eurotan baloratutako sariaren irabazlea: 250 euro Arenal drogerian, 250 BMko erosketa-txekean, 250 Corral jantzidendan, 200 Salaberria bitxitegian eta 150 euro Azitain gasolindegian.

Beheko argazkian, San Andres egunerako antolatutako zozketako irabazlea, sari ederra hartzera joan zenean.



Aurtengo asfaltatze-planari esker 5.000 metro karratuko azalera berrituko dute zazpi kaletan

>>> Eibarko zazpi kaletako ia 5.000 metro kuadroan egingo dira asfaltatze-lanak datozen hilabeteetan, Udalak, kontratazio mahaian, Asfaltatze-lanen 2021eko Plana Orsa SA enpresari 173.697,73 eurotan (BEZa barne) esleitu ondoren. Obrak egiteko epea zazpi aste-koa izango da.

Asfaltatze-lanak Santa Ines, Jardiñeta eta Iparragirre kaleetako zati batzuetan egingo dira; Ibagain eta Matxaria ar-

teko kalezuloan, eta iaz asfaltatu gabe geratu zen Urkiko azalera txiki batean. Gainera, Tiburtzio Anituan koexistenzia-guneetako bat handituko da. Azpimarratu dutenez, asfaltatze-plan berri honen barruan, jarduerarik garrantzitsuenak Santa Ines kaleari dagokio: 1.706 metro kuadro asfaltatuko dituzte bertan. Eta azalera gehien berrituko den bigarren kalea, berriz, Jardiñeta izango da, 1.685 metro kuadroekin.

TUTULUMENDI



Idurre Iriando

Europako Kontseiluak eta Eudelek ematen duten ELoGE 2021 bikaintasunaren zigilua jaso du Udalak

>>> Eibarko Udalak Europako Zigilua lortu du Gobernantzaren Bikaintasunean (2021), aste honetan Bilbon, Eudelen (Euskadiko Udalen Elkarte) egoitzan eguaztenean egindako ekitaldi batean. Eibarrek beste bost euskal udalerrirekin batera (Andoain, Urnieta, Bilbo, Basauri eta Gasteiz) jaso du Europa mailako saria eta, horretarako, Eibarko Udalak autoebaluazioa egin du, Europa osorako tresna komun batean oinarrituta eta Eudelek Euskadiko espezifikotasunera egokitutako 97 adierazle erabiltuta. Horrekin batera, balorazio-inkesta bat egin zen eibartarren eta hautetsien artean, emaitzak alderatzeko. Emaitzak kanpoko auditoria batek neurtu eta baloratu ditu azken hilabete honetan, eta Eudel-ek (ELOGE batzordea) ziurtatu ditu. Aitorpenak tokiko gobernuen kalifikazio gorenarekin egiaztatzen du, “gobernu onaren, kalitatearen eta berrikuntza demokratikoaren 12 printzipioren arabera”. Bai Jon Iraola al-



kateak, bai Zigilua jaso duten udaletako ordezkari politikoei, Gorka Urtaran Eudeleko presidentea eta Gasteizko alkatearen eskutik jaso zuten saria. Gainera, Europako tokiko gobernuentzako “labela” banatzeko ekitaldian, Alina Tatarenko Europako Kontseiluko gobernantza-buruak parte hartu du telematikoki, ELoGE sustatzen duen erakundearen buru den aldetik. Eta M^a del Mar Zabala Eudeleko zuzendariak egin du komunikazio ofiziala.



“Debarrena PYME Digitala” abiatu dute Debegesan

>>> Enpresei Industria 4.0 eta digitalizazio arloetan proiektuak bultzatzen laguntzeko “Debarrena PYME Digitala” programa abiatu du Debegesak, “aipatutako bi arlo horietan enpresek dauzkaten beharrak identifikatu eta teknologia horiek ezartzeko prozesuan laguntzeko”.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 4.0 industria-eredutik abiatuta, lurralde-garapenerako programaren esparruan, 2022ko deialdia zabaldu du Debegesak. Arduradunen berbetan, “zerbitzua doakoa da eta honako hauek dira eskaintzen diren zerbitzuak: enpresaren egoeraren analisia; proiektuak identifikazioa eta lehenespena;

proiektuen garapena; hornitzaile/aliatu egokiak identifikazioa; proiektuen jarraipena; eta laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzeko informazioa”.

Laguntza pertsonalizatu hori lantaldearekin egingo da, lauzpabost saiotan, eta prozesuaren iraupena hiru hilabetekoa izatea aurreikusten da. Deialdia zabalik dago eta izena ematen duten lehenengo lau enpresei eskainiko zaie aholkularitza. Parte hartzeko edo informazio gehiago jasotzeko interesa duten enpresek pymes@debegesa.eus helbide elektronikora mezu bat bidali dezakete edo, bestela, 943 82 01 10 telefono zenbakira deituta eska dezakete programari buruzko informazioa.



'Harro nago zutaz, Eibar vs Amorratzen nauzu, Eibar!' lehiaketan herritarrek saritutako argazkiak aukeratu dituzte

>>> Amaia Alcoba Lopezek eta Alejandro de Diego Prietok irabazi dute 'Harro nago zutaz, Eibar vs Amorratzen nauzu, Eibar!' argazki-lehiaketaren herri-bozketa. Alcobak "Negua Eibarren" argazkiarekin 19 boto jaso ditu 'Harro' atalean eta De Diegok, oster, 29 boto lortu

ditu 'Eibar vaciada' lanarekin, 'Amorratu' atalean. Guztira 95 bozka eman dira atal bietan, baliogabeak kendu ondoren. Argazki guztiak jendaurrean jarri ziren ikusgai udal webgunean 2021eko abenduaren 31ra arte, herritarrek botoa emateko aukera izateko.



Eskalada tailerra antolatu dute LHko ikasleentzat otsailerako

>>> Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleek eskalada tailerra jaso ahal izango dute otsailaren 6an, 13an eta 20an, bi txandatan (16:45etik 18:15era edo 18:15etik 19:45era). Ikastaroan izena emateko epea urtarriaren 21ean zabalduko dute, 31ra arte.

Udalak antolatu du ekimena eta Inguru Abentura enpresak emango du, euskaraz. Eiba-

rren erroldatutako umeek 5 euro ordaindu beharko dutzete eta herritik kanpokoek 10 euro. Bestetik, parte-hartzailerik kirola egiteko zapatilak eta erropa erosoak eraman beharko dute. Ekimenarekin, besteak beste, kirol ezberdinen eskaintza zabaltzea, haurren eskaerei erantzuna ematea eta lagun berriak egiten laguntzea nahi dute.

Orbeako igerilekua itxita egongo da bihar eguerdian

>>> Waterpoloko Master Ligako laugarren jardunaldia hartuko duenez, Orbea kiroldegiko igerilekua itxita egongo da datorren zapatuan, goizeko 11:00etatik arratsaldeko 14:00ak arte.

Hiru ordu horiek kenduta, igerilekua erabiltzeko ordutegia betikoa izango da.



PEDRO ALBIZURI MAGUREGI

2022-01-15

"Bizitzako azken erronkari ere indarrez aurre egin diozulako. Besarkada estu eta bero bat familiaren partetik" – BETI ARTE, ETXEKOAK –

Indianokua; etxearen deskribapena

Indianokua; Sebastian Zumaran; etxearen deskribapena



Indianokua jauregi ederra jasotzeko lanak 1776. urte inguruan hasi ziren, Sebastian de Zumaranen enkarguz. 1951. urtean eraitsi zuten, etxeak egiteko. INDALECIO OJANGUREN.



**Antonio María
Yraolagoitia Orbea**
(1925 - 2016)

Estaziño kalean jaio zen. Gasteizen eta Bergaran egin zituen ikasketak; soldaduska amaitu zuenean Eibarrera itzuli zen eta produktu kimikoen biltegi bat zabaldu zuen. 1955ean “Peña Taurina”ko presidente izendatu zuten; bost urtez egon zen kargu horretan. 1958an Eibarko udaleko zinegotzi sartu zen. 1973ko apirilaren 13an alkate izendatua izan zen; 1978ra arte izan zen Eibarko alkate. Antxon Yraolagoitiak kezka nagusi bi zituen karguaz jabetzean: herriak zuen ur falta eta irakas-kuntza, bere hitzetan “funtsezkoa herri baten nortasunean”. 1976ean “Grabadore bola” saria jaso zuen.

Antonio M^a Yraolagoitziari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“Palacio de Indianokua. Indianokua esaten zetsen *porque fue un indiano que de América mandaba dinero para hacer el palacio. Ese Indiano era Sebastián de Zumaran, que provenía de ahí abajo, de Aginaga. Y ese palacio tenía...*” (...) Hor erreka etortzen zan, *el río Ego*, ta joten eban holan, palaziuaren kontra. Ta hor zeguan palaziua, eta behian ziran kortak (...) Txakolindegi esaten etsen. Ta kapoiak! (...) Ta gero, *primera planta* zan *50 metros de largo por 14 de ancho. Y árboles enteros, árboles enteros de 14 metros!* Ta clavados ultze a ultze, *todavía me acuerdo*. Bueno, hori lehelengo pisua. Eta gero beste pisu bat zekan, eta gero kamarotia. *Pues aquello se derribó el año cincuentaytantos (...)*”.



Hotel Julianen saltzaile asko


Hotel Julianen jende asko egoten zen; saltzaile asko. Saltzaileak trenean ibiltzen ziren; joan eta etorri. Batzuetan bi edo hiru egun egiten zituzten Eibarren eta hotelean gelditzen ziren. Gehienak gazteak ziren, nahiz eta zaharrak ere bazeuden.

Garai batean trenea zen garraio biderik garrantzitsuena eta Eibar hiriburuekin lotzen zuen.



Jose Muñoa Zabaleta
(1921 – 2011)

Aita Elorriotik etorri zen Eibarrera lan egitera. Ama Eibarren bizi zen jadanik eta, ezkontzekotan zeudela, Bidebarrieta kalean zegoen Hotel Julián hartu zuten. Hotelak aurrera egin zuen eta poliki-poliki negozioa handitzen joan zen: taxiak, gasolindegia, e.a. Jose txikitatik hasi zen lanean aitari eta amari laguntzen. Garai batean Batzokia Muñoaneko etxean egon zen eta Josek gertutik bizi izan zituen alderdi desberdinen arteko eztabaidak.



Jose Muñoari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“Biajantiak egoten ziran asko, trenian etortzen ziran. Trenian etorri eta gabian juan. Ta igual egun bi edo hiru egitten zittuen, hotelian lo eginda danak, ta gero juaten ziran beste leku batera. Ta han beste pare bat edo hiru egin egin eta atzera etxera. Ta gero, hurrengo astian urtetzen eben beste alde batera, Bergaratik Arrasate aldera ta, danak hortxe ibiltzen ziran, trianguluan. Ta ziran gaztiak... zaharrak be asko eguazen, eh! Zaharrak beste gauza bat egitten eben: zeken gela bat hartuta ta, gero, zeken hartuta aprte hor salaxka bat, biltzeko... Han jostunak eta, han azaltzen ziran, aber ateratzen zetsen zerbaite edo (...).”



Ainhoa Gomez Perun izan da Egoaizia GKErekin.

<<< AINHOA GÓMEZ GARCÍA • EGOAIZIAko kooperantea >>>

“Gure etxean egiten ditugun ekintzek munduko beste puntan eragiten dute”

Ainhoa Gomez bilbotarrak txikitatik izan du besteei lagutzeko grina. Lankidetzarekiko interesa orain dela urte batzuk Indiara egin zuen bidaian piztu zitzaion. gure herriko Egoaizia GKEren bitartez, Perun egon da APPROCAP kakao kooperatibari babesa ematen dion proiektuan lanean.

Zergatik aukeratu zenuen Egoaizia praktikak egiteko?

Hasieratik iruditu zitzaidan oso hurbileko erakundea. GKE txiki bat izatean, familia baten antza hartu nion, eta horrek konfiantza eta lasaitasuna transmititu zizkidan. Gainera, Egoaiziak bultzatzen dituen proiektuei begiratzean, beharrezkoak eta oso interesgarriak ziren gaiak iruditu zitzaizki-

dan, eta horrek motibatu egin ninduen praktikak bertan egiteko. Bestalde, Egoaiziaren proiektu gehienak Perun zeudela ikusteak ere asko erakarri ninduen: oso gauza onak entzun izan nituen Peruri buruz.

Zein proiektutan egon zara?

Gehien bat APPROCAP kakao-kooperatibari babesa ematen dion proiektuan ibili

naiz lanean. APPROCAP kakao-ekoizle txikiez osatutako kooperatiba da. 20 urte inguruko ibilbidea du, eta guztira 160 bazkide dira. Nire zeregina kooperatibaren alde organizazionalan laguntzea izan da, euren ezaugarriak, ahuleziak eta erronkak identifikatuz, eta horiei erantzuteko ekintzak proposatuz. Bestalde, nire egoaldian zehar izan dituzten

prestakuntza-saio, tailer eta bestelakoetan laguntzen ibili naiz.

Perura joan aurretik, GKE batean bulegotik egiten den lanean parte hartzeko aukera ere izan zenuen. Nola baloratzen duzu Egoaiziak bai gizarte eraldaketarako hezkuntzan eta bai lankidetzan egiten duen lana?

Eta hori oso positiboa izan zen; izan ere, Perura joan aurretik erakunde ondo ezagutzeko aukera izan nuen, eta Peruko esperientziarako prestatu ninduela pentsatzen dut. Nahiz eta erakunde txikia izan, Egoaizia oso erakunde aktiboa dela esango nuke. Maila lokalean intzidentzia handiko proiektu eta ekintza ugari eramaten ditu aurrera, hala nola azokak, lehiaketak, tailerrak... Eta lankidetzari dagokionez, lehenago esan dudana bezala, gaur egun oso garrantzitsuak diren arloak jorratzen dituztela esango nuke.

Nolakoa zen egun arrunt bat?

Eguna goizeko 05:30ean hasien zen niretzat. Autoa hartu eta Piura hiritik landa aldera bidaiatzen genuen 2 orduz. Bertan, kooperatibako bazkideekin programatuta zegoen ekintza edo bileraren bat izaten genuen APPROCAPeko bulegoetan. Bazkaldu ondoren kakao-plantazioak bisitatzen joaten ginen, euren egoera eta jarduerak gertutik ezagutzeko. Horrela ibiltzen ginen arratsaldera arte, eta, bukatzean, autoa berriro hartu eta hirira bueltatzen ginen afalordurako.

Zer gustatzen zaizu gehien Perutik?

Peruko jendearen gertutasunak eta adeitasunak hasieratik utzi ninduten txundituta. Etxean sentiarazi ninduten lehen egunetik, euren planetara? gonbidatuz, zer moduz nengoen galdetuz uneoro. Bestalde, Peruko paisaia aldatzeko ere asko gustatu zait: basamortuan egotetik zonalde

"Hasieratik Peruko jendearen gertutasunak eta adeitasunak txundituta utzi ninduen"



"Beharrezkoa da leku guztietako ongizatea ziurtatzen duten ohitura eta pentsaera bat sustatzea"

berde eta menditsuetan egotera pasatzen zara. Oso herrialde aberatsa iruditu zait alderdi horretatik.

Zer ikasi duzu?

Esperientzia honek gauza asko irakatsi dizkit, baina garrantzitsuena gure etxean egiten ditugun ekintzek munduko beste puntan eragina dutela ikustea izan da. Gaur egun go mundu globalizatuan dena lotuta dago, eta nahiz eta batzuetan ezin dugun ikusi, gure bizitzan zehar ditugun jarrera,

ohitura edota ekintza zehatzek eragin negatiboa edo positiboa izan dezakete munduko beste aldean. Horregatik beharrezkoa iruditzen zait hori agerian uztea, eta munduko leku guztietako ongizatea ziurtatzen duten ohiturak eta pentsaerak sustatzea, non inork ez duen beste baten libre eta zoriontsu izateko eskubidea oztopatzen.

Nola aldatu zaitu bidaiak honak?

Perura eta beste herrialdeetara egin ditudan bidaiak oso

argi utzi didate zorte ikaragarria izan dudala jaio nizen tokian jaiotzeagatik. Zurea ez den beste errealitate bat ez baduzu ikusten, ez zara konturatzen zuretzako arruntak diren eskubideak edo zerbitzuak beste toki batzuetan luxuzkoak bihurtzen direla. Horregatik orain asko eskertzen ditut lehen arruntak iruditzen zitzaizkidan gauzak: eskolara joateko eta ikasten jarraitzeko eskubidea izatea, egunero hiru otordu izatea, gauero lo egiteko ohea izatea ... Orain askoz ere gehiago baloratzen ditudan gauzak dira, zalan-tza barik.

Nori gomendatuko zenioke zurea bezalako esperientzia bat bizitzea?

Bere errealitatek atera nahi duen eta bizitzeko beste modu bat ezagutu nahi duen edozeini gomendatuko nioke. Egia esan, edonork bizi beharko luke horrelako zerbait; norberaren bizitzarako oso positiboak diren gauza asko ikasten dira.

Eta orain... zer?

Hemendik aurrerako bidea, egia esan, ez dut oso argi. Ziur dudana da lankidetzaren bideak jarraitu nahi dudala, eta nire lehen helburua arlo horretan lanposturen bat bilatzea izango dela, baina badakit ez dela erraza izango, aukera gutxi baitaude lankidetzatik bizi ahal izateko. Bestalde, ahal dudana heinean Egoaiziari laguntzen jarraituko dut, esperientzia honen ondoren erakundearen parte sentitzen naiz-eta.

www.aldatze.eus

aldatze

ALDATZE DENOK GARA

MATRIKULA - IZEN EMATEA -
ETA BISITA GIDATUA EGITEKO
(urtarrilak 15 eta 22) →



Borrokarekin segitzeko prest, pentsioak legez blindatu arte

Pentsio duin eta publikoak aldarrikatzeko mobilizazioak hasi zirela 4 urte bete ziren urtarrilaren 15ean eta, hori dela eta, zapatuan manifestazioak egin ziren Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta beste hainbat hiritan, baita Eibarren ere. Debabarreneko pentsiodunek deituta gure herrian eguerdian egin zen manifestazioan 800 bat lagun elkartu ziren.

Protestaren amaieran, gogora ekarri zuten lau urte daramatzatela pentsioen sistema publikoa defendatzen eta ohartarazi dute “behartuta daudela” borrokan “tinko” jarraitzera harik eta pentsioak aurrekontu orokorrean “legez blindatzea” lortu arte, ikusita “gobernu honen zati handi batek erreberentzia” egiten diela “botere ekonomikoei eta finantzarioei”.

BIDEOA IKUSTEKO





Intsumisioak betirako elkartuta

Martitzenean aurkeztu zuen Lander Garrok “2 urte 4 hilabete eta egun bat” izeneko dokumentala Coliseo antzokian. Sasoi batean derrigorrezkoa izan zen soldaduskari uko egiteagatik Iruñean kartzela-zigorra bete zuten sei lagunen esperientziatik abiatuta, ordu eta erdiko iraupena duen lanean intsumisioa, antimilitarismoa, soldaduskaren kontrako mugimendua eta beste kontu batzuk jorratu ditu zuzendariak. 90eko hamarkadako irudiak, protagonista eta lekukoei egindako elkarrizketekin tartekatzen ditu dokumentalak. Emaitza, berriz, biribila: garai hartan Euskal Herriko kaleetan bizi zen borroka eta sentimenduaren testigantza grafikoa.

Dokumentala amaitu eta, jarraian, intsumisioaren inguruan berbetan ari zeko aukera egon zen, lanaren zuzendariaren parte-hartzea izan zuen solasaldian. Garrorekin batera, Eibarren soldaduskaren kontrako mugimendua modu aktiboan bizi izan zuten hiru eibartar: Enrike Gisasola eta Joseba Lazkano intsumisioak eta derrigorrezko soldadutzaren aurkako borrokan lagun izan zuten Oihana Ugarteburu.

Filma ikustera joandakoen artean ere intsumisio izandako batzuk egon ziren eta, bestela ere, mugimendu antimilitarista zuzenean bizi izandakoak ziren gehienak. Aspaldiko kontuak gogoratzeko giro ezin aproposagoa, beraz.

Zuzendariaren berbetan, bere asmoetako bat “gure herriri buruzko kronika txiki bat” egitea izan da, baita lortu ere. Dokumentalean ikusten diren irudiek oso argi lagatzen

“Gure artean zeuden ezberdintasunak albo batera laga eta elkarrekin borrokatzeko gai izan ginen”



asko ziren: ejerzitoaren kontra egotea, abertzaletasuna, erlijioa... bakoitzak bere arrazoiak zeuzkan. Baina, hala ere, denak elkarrekin borrokatzeko gauza izan ginen, ezberdintasunak albo batera lagata”.

Lanari izenburua ematen dion 2 urte 4 hilabete eta egun bateko zigor asko bete behar izan zituzten intsumisioek, Estatuari irabaztea lortu aurretik. Aznarren gobernua lorpenaren meritua bereganatzen ahalegindu arren, jakin badakite beraien borroka luze eta gogorrari esker lortu zela Espainian derrigorrezko zerbitzu militarrekin amaitzea, 2001eko martxoaren 9ko 247/2001 Errege Dekretuarekin.

Hala ere, ez zutela ospatu diote: “Garaipenaren sentimendu horrek kalean horrenbeste indar lortu zuen borroka desaktibatzeke balio izan zuela, horren sentsazioa izan genuen gutariko askok”. ■

BIDEOA IKUSTEKO



dute garai hartan borroka kalean zegoela, “eta ez Twitter eta horrelakoetan, gaur egunean bezala”.

Soldaduskaren kontrako sentimendua herritarren artean oso zabalduta zegoela ere ekarri nahi izan zuten gogora: “Intsumisio egiteko arrazoiak



Midoria egiten ikasteko tailerra urtarrilaren 26ra pasatu da

>>> Aurreko alean Midori Tailerra urtarrilaren 25ean egingo zela iragarri bagenuen ere, azkenean urtarrilaren 26an egingo da, hurrengo asteko eguaztenean. Orduak eta lekuak, berriz, ez dute aldatarik izango eta ikastaroa ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan egingo da 18:00etan hasita 20:00ak arte.

Arima Cool Tour elkarteak Urkok emango du ikastaroa. Irakasle ezaguna dugu ...eta kitto!-n, sarritan etorri da-eta ikastaro ezberdinak ematera. Oraingoan, Japoniatik datorren "bidaiatzeko liburuxka berezi hau egiteko teknika ikasiko dugu. Koadernaketa-sistema erraza egingo dugu, gomak erabiliz, eta kartulina, oihalak eta kolore eta diseinu ezberdinetako paperarekin egingo ditugu midoriak", diosku. Sormenari alde handia uzten dion teknika dela dio Urkok eta "edozeinek egiteko modukoa. Behin oinarritzko pausoak ikasi eta gero, gure bidaiatzeko koaderno kustomizatu ederra sortzeko gai izango gara".

Izena emateko elkartera deitu daiteke (943200918) edo mezu bat bidali (elkartea@etakitto.eus). 3 euro balio du.

Makina Erremintaren museoa bisitatu dute berbalagunek

>>> Eibarren tren hartuta Elgoibar aldera abiatu zen berbalagun-talde bat joan den martitzenean. Bertako Makina Erremintaren museoa zuten hitzordua. Bea gidariaren azalpenak adi-adi entzun zituzten, ezerk ihes ez egiteko; bailarako historia industrialaz jabetzeko eta, bide batez, berlarriak eta mingaina praktikan jartzeko aukera ezin hobea izan zuten berbalagunek.

1998. urtean zabaldu zituen ateak museoak, "gure historia industrial eta bertako protagonista izan ziren gizon-emakumeak gogora ekartzeko nahia erantzunez". Museo "bizia" da, makina-erremintak martxan ditu eta XIX. mendearen erdialdera gure eskualdean zeuden mekanizazio-tailerretako bat erreproduzitzen du. "Gure aitzindariak egindako makina-erreminta adierazgarrienak ditugu bertan, esaterako: tornu paraleloak, fresatzailak, zulagailuak... eta guztiak martxan daude", kontatu zien Beak.

Ordubeteko bisita interesgarria mokadutxoarekin amaitu zuten berbalagunek, eta gainerako taldekideei kontatzeko makina bat ipuin eta istorio ekarri zituzten bueltan Eibarrera. Hurrengo asterako gairik ez zaie faltako, mintzapraktikan jarduteko. Hurrengo astean, barixaku goizetan elkartu ohi diren berbalagunen txanda izango da; barixaku goizean bisitatuko dute Elgoibarko museoa.

Berbetan programak, astean behineko mintzapraktikako taldeak eskaintzeaz gain, bestelako hainbat ekintza ere eskaintzen dizkie berbalagunei: txangoak, hitzaldiak, tailerrak... Museora egindako bisita izan da ekintza horietako bat. Urte osoan eman daiteke izena 943200918 telefonora deituta edo elkartea@etakitto.eus helbidera mezu bidaliz. Giro natural eta informalean euskara praktikatzeko aukera ezin hobea eskaintzen du egitasmoak.

Barixakuak Jolasian ekimena Torrekuan egingo da gaur

>>> Torrekuako parkeak hartuko ditu gaur Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak. Txaltxa Zelairi lekukoa hartuta, Amaña aldera egingo du eta bertan egingo dira HH3 eta LH2 mailen arteko umeentzat jolasak, doan eta begiraleek lagunduta. Arratsaldeko 17:00etan hasi eta 18:00etan amaituko dira.





Antzerki Laborategiaren funtzio arrakastatsua

Antzerki Laborategian ez dago pipetarik, matrazerik edo probetarik, baina demaseko kimika sortu da Irene Hernando aktore, sortzaile eta antzerki irakasle eibartarraren ikastaroan. Antzerki-tailerrak urrian zabaldu zituen ateak eta lehen kapitulua amaitzeaz da, baina parte-hartzaileak oso pozik daude Errebal Plazian ezagutu duten mundu berriarekin eta, ekimenaren arrakasta ikusita, antzerki-tailerrak jarraipena izango du eta ikasle berriek izena eman ahal izango dute gainera.

Errebal Plazia erdi hutsik dago oraindik, baina antzerki laborategiko parte-hartzaileek mundu berri bat sortu dute bertan, antzerkiak eta imajinazioak zabaltzen dituen mugak aprobetxatuta. Eguazten arratsaldeetan Errebaleko teloa altxatzen da eta parte-hartzaileek irudimena askatzen dute Irene Hernandoren gidaritzan bikainarekin.

Ordu eta laurden irauten duten lau saiotan banatuta, umeak, nerabeak eta helduak Errebaletik pasatu dira urriaz geroztik, hainbeste urtetan he-

rriaren elikatu ezin izan den antzerki gosea asetzeko. “Hasierran, beste era batean mugitzeko beharra atzeman nuen jendearengan”, esan digu Hernandok eguazteneko klaseak amaitu eta berehala. Izan ere, berak dioen bezala, “antzerki fisikoak poesia sartzen dio gorputzari”.

Antzerkia egin dute, baina bizitzarako tresnak jaso dituzte hilabete hauetan. “Alderdi asko lantzen ditugu: antzerki fisiko, euskara, emozioak, irudimena, taldeko lana... baina batez ere jendearen poztasuna nabarmenduko nuke. Atetik

sartzen den pertsona eta klase amaieran kalera irteten dena oso pertsona ezberdinak dira”, Hernandoren ustez. “Oso pozik irteten dira hemendik eta horrek demaseko gogobetetzea ematen dit”, gehitzen du.

Askok ikasi ondo pasatuz

Ikasleak bezala, Hernando oso pozik dago orain arte egindako lanarekin. “Uste nuena baino askoz hobeto irten da dena”, diosku, eta ikasleen jarrera goraiatzeko du: “Jolasteko demaseko gogoak dutela ikusi dut. Oso ikasle onak dira!”.

Jolasteko gogoak dute, baina ez umeek bakarrik, baita helduek ere. Izan ere, oso adin ezberdinetako jendeak hartu du parte tailerrean. “Adin bakoitzaren beharretara eta parte-hartzaileen izaerara egokitu ditut saioak, baina kalitate aldetik maila bera eman diet klaseei”, azpimarratzen du irakasleak.

Arlo ludikoak garrantzia du Hernandoren klaseetan, baina horrek ez du esan nahi bertan ikasten ez denik. Are gehiago, gauzak ikasteko modu atsegina da. “Ludikoa esaten denean badirudi ez dela ikas



Antzerki Laborategiko parte-hartzaileek teknika ezberdinak erabili dituzte antzerki arloan murgiltzeko eta barruan dutena erabiltzeko, umorez eta oso ondo pasatuz.

EKHI BELAR

ten edo lan egiten, baina justu kontrakoa da, askoz gehiago ikasten da. Kontua da ahoan irribarre batekin ikasten dela”, azpimarratzen du. Hernandok ibilbide luzea egin du antzerkian, arte-eszenikoetan, sorkuntzan eta beste zenbait arte-diziplinatan, eta urte hauetan ikasi duena igortzen saiatzen da ikasleei.

Hiru hilabete eta erdi besterik ez ditu iraun laborategiaren lehen funtzioak, baina irakasleak demaseko eboluzioa ikusi du ikasleengan. “Hasieran jendea lotsatuta zegoen, ez delako erraza jende aurrean ohituta ez gauden gauzak egitea, baina gaur egun familia osatu dugu Errebalen”, dio harro. “Ikasleek antzerki-teknika eta ezagutza aldetik eboluzionatu dute, baina ez hori bakarrik, pertsona moduan hiru pausu aurrera eman dituztela esango nuke”, gehitzen du.

Bigarren funtzioa

Ikastaroak datorren astean izango du amaiera, baina lehen funtzioaren amaiera besterik ez da izango, otsailean bigarren hasiko delako. “Hasieran ez genekien tailerrak ondo funtzionatuko zuen edo, amaitu ondoren, jendeak jarraitu nahi izango zuen. Baina denek errepikatuko dute eta horrek demaseko ilusioa egiten dit aurrera begira”, dio pozik Hernandok.

“Herriarrentzat oso aukera polita eta aberasgarria da beste modu batean hazteko eta ikasteko”

Tailer berria otsailaren 8an hasi eta maiatzaren 31n amaituko da, eta bi maila egongo dira, 0 eta 1. 0 mailan ikasle berriak bi taldetan banatuta egongo dira (L.H.-ko 3. mailatik DBH-ko 2. mailara 18:15etik 19:30era, eta DBH-ko 3. mailatik gorakoak 19:30etik 20:45era, denak martitzenean), eta 1 mailan orain arte laborategian ibili diren parte-hartzaileak arituko dira, lau taldetan banatuta, orain arte egindakoari jarraipena emateko asmoz.

Gaur zabaldu dute aurrematrikula egiteko epea eta hilaren 31ra arte egongo da zabalik. Tailerra euskaraz eta gaztelez eskainiko da eta, prezioari dagokionez, Eibarren erroldatuek 40 euro ordaindu beharko dute eta Eibartik kanpokoek 80 euro.

Esan bezala, lehen ikastaroan parte hartu duten guztiek eman dute izena bigarrenarako eta ez

BIDEOA IKUSTEKO





Irene Hernandoren klaseetan oso giro ona sortu da eta parte-hartzaileek asko ikasi dute. EKHI BELAR

da harritzekoa, irribarre handi batekin irteten direlako klasetik. Ikasleek berba goxoak besterik ez dituzte irakaslearentzat eta biziki gomendatzen dute antzerki laborategian izena ematea. “Egunerokotik irteteko demaseko ekintza da. Momentu batez arazoak atzean lagatzen dituzu, burua askatzen duzu, lotsak kendu, barre egin... Hau

ikusita, izena emango ez banu damutu egingo nintzateke”, esan digu parte-hartzaile batek.

Sortzailea den neurrian, Hernandok “hamar mila proiektu” ditu buruan eta antzerki-tailerreko ikasleekin egiteko ideia ugari sortu zaizkio. “Coliseoko argietan pentsatzen jarria naiz dagoeneko!”, dio irakasleak. Ikasleek egindako lana forma-

tu txikian erakustea gustatuko litzaioke. “O mailatik gorako talde bakoitzarentzat ikuskitunak prestatzen hastea da epe motzerako dudaren proiektua. O mailakoen kasuan nola moldatzen diren ikusi beharko dut. Prozesuari garrantzia gehiago ematen diot eta prest daudela ikusi arte ez ditut edozein gauza egiten jarri nahi”, diosku.

Hernandok eta ikasleek zerbait ederra sortu dute Errebalen eta antzerki mugimendu berri honek jarraipena izatea nahi dute. “Eibarren oso gauza politak egin daitezkeela uste dut, eta herritarrentzat oso aukera polita eta aberasgarria da beste modu baten hazteko eta ikasteko”, bere ustez. Bizitzeko beste modu bat da antzerkia.

688 62 76 89
ESKERTZAK ETA URTEURRENAK
943 20 09 18
Urkozu, 11 - solairuartera
publizitatea@etakitto.eus

FUNEUSKADI Grupo Auzkoa
FUNERARIA MUGICA Funeuskadi

TANATORIO EIBAR
FUNERARIA MUGICA
TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Ponentziaren eraketan eskualdearen premiei buruzko hausnarketa sakona egiteko ahaleaginean “tartean dauden erakundeek ekarpenak jasoko dira (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako eta Bizkaiko aldundiak eta zortzi udalak), eragile sindikal, enpresarial eta arlo soziologiko eta ekonomikoko adituene-narekin batera”. Azken helburua eskualdea suspertzeko plan estrategikoa diseinatze-ko irizpideak adostea izango da. Plan hori, gainera, prozesu parte-hartzaile zabalaren bidez garatuko da, Tokiko Garapen agentziaren gidaritzapean eta hainbat mailatako instituzioen lan ildoak eta inbertsioak barneratuta.

Hilaren 12ko hitzaldia

Aipatutako prozesu horren barruan hartu behar dugu aurreko asteko eguaztenean Jon Iraola Eibarko alkatearen parte-hartzea “Debabarrena berroneratzeko ponentzian”. Berarekin izan ziren baita Ermua, Deba eta Mutrikuko alkateak ere: Soraluze, Elgoibar, Mendaro eta Mallabia dira eskualdeko beste lau udalerrriak eta bertako alkateek aurretik izan ziren Gasteizen.

Eusko Legebiltzarrean Eibarko alkateak aldarrikatu zuenez, “hiriburuetan zentratutako egungo ereduaren aurrean, udalez gairidiko erakundeek lagundu behar dute Debabarrena eskualdean trakzio-proiektuak garatzen, lurralde-oreka bermatze aldera”. Gasteizen emandako hitzaldian, aurrera egiteko beharrezkoak diren trakzio-proiektu batzuk azaldu zituen Iraolak, “hala nola Azitaingo industrialdean jarduera ekonomikoa sendotzea, hiri-espazio erakargarriago bat eratzea, industria-ondarea balioan jartzeta edo eskualdean bidegorri-sarea zabaltzea”.

Bi abiadurako Euskadi

Alkateak azpimarratu zuenez, “Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak Debabarrena eskualdean

Eibar eta eskualdea indartzeko ahaleaginean

2021eko urriaren 7an Eusko Legebiltzarrak Debabarreneko eskualdea eta bertan sartzen diren udalerrriak suspertzeko ponentzia eratzea erabaki zuen, EAJ-PNVk, EH Bilduk eta Euskal Sozialistak - Socialistas Vascoak taldeek egindako proposamenari erantzunez.



Azitaingo industrialdea sendotu, hiri-espazio erakargarriagoa eratu, industria-ondarea balioan jarri eta bidegorri-sarea zabaldu nahi da

aberastasuna sortuko duten trakzio-proiektuak garatzen lagundu beharko lukete”, “laguntza hori modu orekatuan banatzea Autonomia Erkidegoko lurraldeen artean” eskatzen zuen bitartean. Orain arte gertatutakoarekin kontrajarri baitzuen asmo berria. “Izan ere, erakundeek babes-politikak hiriburuetan eta haien inguruetan zentratu direlako, gainerako lurraldeen kaltetan”.

Iraolak adierazi zuenez, “egungo egoeraren ondorioz, herria eta haren ingurua hazkunde txiki edo ertaineko sektore ekonomikoak izatera behartuta dago, hiriburuetan edo eragin metropolitarrako tokietan finkatuta dauden hazkunde handiko sektoreen aurrean”. Horregatik, beharrezkoa ikusten du ekonomia-erakarguneak sortzea Debabarrenean, udalez gairidiko administrazioen laguntza eta lankidetzarekin. Horren harira, honakoa ere gehitu zuen: “Orain arte bezala jarraitzeak bi abiadurako Euskadi bat betikotzea ekarriko luke, non hiriburuen eta haien eremu metropolitarraren garapenaren aldeko apustuak eragin negatiboa dakartzan Eibar eta eskualdeko udalerrientzat”.

Trakzio proiektuak

Bere mintzaldian Eibarko alkateak eskualdearen aurrerabideari lagunduko lioketen trakzio-proiektuetako batzuk azaldu zituen, horiek martxan jartzeko erakundeek laguntza eskatzeaz gain. Azitaingo eta Erisonoko industrialdeetan jarduera ekonomikoa sendotzea da proiektu horietako lehendabizikoaren helburua, sarbideak hobetuz besteak beste. Eibarko Udalak azterlan teknikoa enkargatu zuen iaz Azitaingo Industrialderako errepidea hobetzeko, eta obren aurrekontua 800.000 eurotik gorakoa da. Aurrekoarekin lotuta, Iraolak aipatu zuen Eusko Jaurlaritzak, Eibarko Udalaren ekimenez, Eibarko parke teknologikoa handitzea proposatu duela (14.978 metro koadroko

“Eibarko parke tenologikoa handitzea Europako Next funtsak merezi ditzakeen proiektua da”



Azitaingo Industrialderako errepidea hobetzeko obren aurrekontua 800.000 eurotik gorakoa da.

urbanizazioa eta egokitzapena, 54.665 metro koadroko eraiki-garritasuna eta 15.400.000 euroko aurrekontua), Europako Next funtsak merezi ditzakeen proiektu gisa. Eskualdeko eta Eibarko espezializazio-eremu nagusiekin bat datozen teknologiei eta sektoreei (Industria 4.0, Mekatronika eta Doitasun Ingeniaritza) lotutako enpresa-proiektuak erakartzea izango litzateke handitze horren helburua.

Azaldutako bigarren proiektu eragilea espazio urbano erakargarriago bat eratzea izan zen, eta erakundeen laguntza eskatu zuen “udal etxebizitzaren parkea birgaitzeko eta espazio eta eremu degradatuak berreskuratzeko”. Hirugarren egitasmoa, bestalde, “Eibarko industria-ondarea herriaren eta eskualdearen produktu turistiko-kultural berezi eta bereizgarri gisa baloratzea, turismo-sektorearen

“Garapenerako azken helburua gazteek bertan geratzea nahiko duten Eibar bat lortzea da”

modernizazioarekin eta lehiakortasunarekin eta haren eraldaketarekin batera” izan zen. Atal horretan beharrezkotzat jo zuen “hirian eta eskualdean aberastasuna eta talentua erakartzeko gune estrategiko bat izatea, gure iragan industriaren kulturen eta aberastasunean oinarritua”.

“Eibar eskualdeko gainerako herriekin bidegorrien bidez lotzea beharrezkoa dela” ere adierazi zuen Iraolak. Eta aurrerapausoak eman behar direla esan zuen Soralezarekin konexioan, “Debagoienaren ateak irekitzeko”, eta baita Ermuarekin ere. “Eskualdeko garapeneraren azken helburuetako bat XXI. mendeko Eibar bat lortzea izan behar da, gazteek bertan geratu eta beren bizitza egin nahiko duten Eibar bat”, esanez amaitu zuen.



Aurreko astean azaldu zituen gure herriko alkateak bere asmoak Eusko Legebiltzarrean.

<<< MARKEL ALBERDI • Igerilari ohia >>>

“Joko Olinpikoen ondoren ez nion zentzurik aurkitzen igeriketan jarraitzeari”

Igerilekuko lerro zuzena eta bizitzaren kurbak uztartu ditu Markel Alberdik ‘The line’ izeneko egitasmoan. Eibartarrak ‘Egureka’ proiektua jarri du martxan, egurra landuz buru-osasunaren inguruan hausnartzeko eta, bide batez, etxea apaintzeko pieza dotoreak egiteko.

EKHI BELAR

Zer dira esku artean dituzun bi pieza horiek?

Zaletasun berria aurkitu nuen eta makina bat erosi nuen digitaletan diseinatutakoa egurrean lantzeko. Hau da, egurrari ordenagailuan diseinatutako formak emateko. Kuriositate hutsez erosi nuen makina, saltsan ibiltzeko, baina proiektu bat garatzea pentsatu nuen. ‘Egureka’-ren bitartez nire lehengo bizitza eta gaur egungo zaletasuna uztartzen ditut (igeriketa eta egur-lanketa), dekoraziorako balio dezaketen piezen bitartez. Bizitza hark erakutsi zizkidan gauzak islatu nahi ditut.

Proiektua babesteko mikro-mezenasgo kanpaina jarri zenuen martxan eta jendeak ondo erantzun zuen. Zeregingo duzu jasotako diruarekin?

Materiala erosi eta, gero, irabaziak Espainiako Osasun Mentaleko Konfederazioari emango dizkiot. Jendearen babesari esker oso azkar heldu ginen kanpaina hasieran jarritako helburua lortzera. Ezusteko polita izan zen.

Zeintzuk izango dira hurrengo pausuak?

Banekien guzti honek lan asko ekarriko zuela eta urtarrila jarri nuen produktuak entregatzeko epe bezala. Erdiak baino gehiago entregatu ditut dagoeneko, baina lana dela-eta ez dut denbora libre askorik eta bestela zoratu egingo naiz... Eta hain zuzen ere osasun mentalaren in-



guruan berba egiteko eta hausnartzeko balio behar du proiektu honek! (barreak)

Piezetako batean igerilekuko lerro moduko bat ikusi dezakegu. Orduak eta orduak eman dituzu lerro zuzen horri jarraituz, baina aipatu izan duzue lerro guztiak ez direla zuzenak, kurbak ere badaudela. Nola egin diezu aurre kurbei?

Bizitzan ezer ez da lerro zuzena. Gauza txarrak gertatu aurretik ez gara jabetzen arazoak zentzuzko diren. Ezagun batzuk kirolpsikologoarengana joaten ziren eta zertarako joaten ziren galdeetzen nien. Ni oso ondo negoen, baina ia egun batetik bestera antsietatearekin hasi nintzen. Ez zen une hartan gertatutako zerbaitengatik izan. Urte askotan zehar ikasten eta kirolean exigentzia asko izan nuen, neure buruari asko exigitzen nion, eta heldu nintzen momentu batera non ezin nintzen ondo bizi eta, are gutxiago, egunero zortzi orduz entrenatu. Beste alde batetik, Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetarako zortzi hilabete falta ziren eta estu hartuta negoen. Atsedena hartzea izango litzateke egokiena, baina ia ez nuen denborarik eta, lagaz gero, hainbeste urtetan landutakoa galduko nuen. Beraz, gertatzen ari zitzaidanaz jabetzen ahalegindu nintzen, egunerokoa murgilduta negoen ez nintzelako ondo konturatzen. Une batetan guztiaz jabetu nintzen eta ia ezin nuen lorik egin. Laguntza eskatu nuen, egoerari buelta ematen hasi nintzen eta, zorionez, Joko Olinpikoetara joan ahal izan nintzen ametsa bizitzera.



Amets moduan bizi izan zenituen Joko Olinpikoak?

Bai. Inoiz bizi izan dudan urterik zailena izan zen, baina Rio de Janeiron egon nintzen bi aste horiek oso politak izan ziren. Oso ondo pasatu nuen eta, era berean, esperientzia surrealista izan zen.

Arazoak arazo, oso marka onak lortu zenituen Rion. Nola moldatu zinen hain errendimendua izateko?

Banekien buruko kontuak ez zirela egun batetik bestera joango, bidea luzea izango zela eta bide horretan zenbait txapelketari aurre egin behar niela. Mentalitate horrekin egin nion aurre egoerari. Rion, lasterketa amaieran pareta jo nuenean eta denbora ikusi nuenean, "kitto" esan nuen. Fisikoki ondo negoen, baina Joko Olinpikoetan lan txarra egitea zen nire beldurra. Dena ondo irten zen eta asko gozatu nuen han egon nintzen egunetan. Laguntzarik jaso gabe jota iritsiko nintzateke Riora.

Kirolari onenen artean egon ondoren, Riotik bueltan igeriketa laga zenuen. Oso estua da alde biak banatzen dituen lerroa?

Igeriketa gorrotatzera iritsi nintzen. Joko Olinpikoen ondoren ez nion zentzurik aurkitzen igeriketan jarraitzeari. Pare bat orduz entrenatzen nuen, baina ez nion zentzurik aurkitzen. Laga ondoren, dena errazagoa izango zela uste nuen, baina ez zen horrela izan.

Normala, bizitza osoa igerilekuan pasa ondoren...

Igeriketarekin asko gozatu dut, baina urte askotan zehar igeriketa izan da nire bizitzaren zati handiena hartu duen jarduera eta laga nuenean demaseko krisia izan nuen. Nire identitatearen inguruan hausnartu nuen. "Nor naiz?", galdetzen nion nire buruari. Laguntza behar izan nuen eta bidea luzea da. Motibazio berriak bilatu nituen, nire izaera bizitza normalago batera egokitu nuen eta horrek lan bat eskatzen du.

Klub, federazioen eta abarren aldetik arlo psikologikoa zaintzen da? Badaude baliabideak?

Ez. Madrilen goi-errendimenduko zentroan negoen ez zen ezer entzuten psikologoei buruz. Psikologoak badaude, baina ez zaituzte bultzatzen euren gana joateko. Hau da, astero fisioterapeutarengana joatea gomendatu ahal dizute, baina psikologoari buruz ez diote ezer. Eta ez da kirolpsikologia kontua bakarrik, hau da, errendimendua hobetzeko, baizik eta bizitzarako. Gainera, gauza zaila da, dirurik ez baduzu, ezin duzulako psikologora joan, eta Gizarte Segurantzaren bitartez nahiko tamalgarrria da kontua.

Kirolariet hartu duzue buru-osasunari buruz berba egiteko ardura...

Pau Gasolek, Simon Bilesek eta horrelako kirolariet buru-osasunaz berba eginez, jendeak normalagotzat hartuko ditu horrelako gaiak. Hala ere, benetako aldaketa ez dator euren berbetatik, baizik eta gaia kalea ekartzetik. Adibidez, arazo bat edukiz gero, guk geuk ondo ez gaudela onartzea, familiari edo lagunei esatea eta laguntza bilatzea.

**Bideoa
Youtubeko
kanalean ikusgai**



GLORIA AROSTEGI EGAÑA

(4. URTEURRENA: 2018-I-21)

*"Beste behin ere...
eskerrik asko, guapita"*

— ETXEKOAK —





Arrate Garitaonandia

Arrate Garitaonandia

Depresioa

Aurreko astean, urtarrilak 13, depresioaren aurkako nazioarteko eguna ospatu zen. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, 2050ean depresioa izango da herritarren osasun-arazo nagusia.

Azken bi urteak agertoki aproposa dira depresioa azalera-tzeko, hazteko eta garatzeko. kontaktu sozialaren murrizketa, isolamendurako joera, kutsatzeko beldurra, musuen eta besarkaden murrizketa, ezkortasun-giroa eta neke orokorra dira "bolada txar bat" nahasmendu depresibo bihurtzen duten faktoreetako batzuk.

Edonork jakin dezake zer den depresioa. Baina normalean jendeak ez daki ikusten den lehenengo gauza ez dela beti tristura izaten. Hurrek, adibidez, pasibotasuna, asperdura eta energiarik eza adieraz dezakete. Ez da ohikoa haur deprimitu batek triste dagoela esatea. Gutxiago jokatuko du, agian ez du goserik izango, inaktiboago egongo da, agian obedienteago edo

"Kontaktu sozialaren murrizketa, kutsatzeko beldurra, ezkortasun-giroa, neke orokorra... dira bolada txar bat nahasmendu depresibo bihurtzen duten faktoreetako batzuk"

otzanago, beharbada oharkabean pasatuko da klasean. Hurretan tristura ez sentitzeko modu bat hiperaktibo egotea izan daiteke, alegia, mugimendua lasaigarria eta autoerregulazio modu bat izan daiteke.

Zaila da sozialki aktiboa den edo jarduera asko egiten dituen pertsona bat deprimituta dagoen norbaitekin lotzea. Ohikoa da, halaber, nerabe batean depresioa pasibotasunarekin eta alferkeriarekin nahastea.

Kontua ez da Osasun Mentaleko aditu bihurtzea, baina sentikorrek izan gaitzke eta nola nagoen, zer sentitzen dudana eta zer behar dudana behatzeko ariketa bat egin dezakegu. Eta ingurukoekin ere sentibera izatea, beharrezkoa izanez gero, profesional batengana hurbiltzeko, hitz egiteko eta harekin kontsultatzeko. Mezua da: "Ez zaude bakarrik". Zaintza-ariketa bat da, komunitate gisa egin behar duguna, ez dezagun ahaztu komunitatearen deskonexioa zalantzazko patu batera joatea dela.



Jon Mikel Mujika

Jon Mikel Mujika

Iraganera begira

Azkenean jaurti dute James Webb espazio-teleskopioa (JWST). Abenduaren 25a izan zen egun seinatua. Europar Espazio Agentziak Guyana Frantsesean duen basetik aineratu zuten Ariane 5 suziri baten barruan. Espazio esplorazioan mugarri bat izango da. 1990. urtean espazioratu zen Hubble teleskopioari, atera ahal zitzaion mami guztia atera ondoren, JWST-k unibertsoa ikusteko leiho berri bat irekiko digu.

"Gure herriaren iragan beltza argitzeko ez dugu instrumentu garesti edo konplexurik behar. Gauza bakarra behar dugu, borondatea"

Ez da bide erraza izan teleskopio honek bere jaiotzatik gure planeta utzi duen arte igaro behar izan duena. 1996an hasi zen asmo handiko proiektu honen garapena. Hasierako definizioetan, 2007rako planifikatu zen bere espazioratzea 500 milioi dolarretako aurrekontupean. Atzerapen eta gainkostu ugari jasan ditu proiektuak denbora guzti honetan, tartean 2005. urteko diseinuaren goitik beherrako birmoldaketa. Milaka zientzilari eta hainbat nazioen elkarlanaren fruitua da JWST.

Oztopoak oztopo, pentsatu baino 15 urte beranduago eta aurreikusitakoa baino 20 aldiz gehiagoko kostuarekin, baina laster hasiko zaigu informazioa ematen. JWST espektro infragorria behatzeko bereziki sortutako instrumentua da. Gaitasun honek denboran 13.500 milioi urte atzera egitea ahalbidetuko digu eta gure unibertsoaren sorrerako izar eta galaxien ezauzgarriak ikertzeko aukera emango du.

Esanguratsua da iraganeko gertaerak deskubritzeko gizakiak duen gaitasuna. Desagertzeak dagoen hari muturrik lausoanari helduta ere, aspaldiko errealitateak azaleratu daitezkeela hamaika aldiz frogatu du zientziak. Baina errealitate hori ez da politika tartean dagoenean ematen, antza.

Frankoren diktadura amaitu zela hamarnaka urte igaro dira dagoeneko. Aste honetan bertan, eta gure muturren aurrean, trantsizioko ministro ohi Rodolfo Martín Villak, ironikoki bada ere, aspaldi egindako ankerkerietan izan zuen erantzukizuna onartu du. Lotsagabe, zigorgabekeriaz. Gure herriaren iragan beltza argitzeko ez dugu instrumentu garesti edo konplexurik behar. Gauza bakarra behar dugu, borondatea.



Urte osoko mendi-irteeren egutegia

Urterokoari jarraituz, Klub Deportiboko Mendi Batzordekoek 2022 osorako egitaraua zehaztu dute, bertan zailtasun tekniko ezberdinetako 30 irteera kokatuz, Mendi Jardunaldietako Astearekin eta Jardunaldi Mikologikoekin batera. Egitarau hori urtarilaren 1ean abiatu zen, urte hasierako Urko puntarainoko igoerarekin.

Eta aurreko zapatuan 40 laguneko taldeak Artzaintza Ibilbidearen beste etapa bat osatu zuen, Lizarrustin hasi eta Otzaurten amaitzeko, tartean 985 metroko Balankaleku gaina zapalduz. Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugan egindako 19 kilometroko ibilbide horretan hainbat gailur egin zituzten, “desnibel handirik gabekoak gehienak”: Irumugeta, Intsusburu, Igartza... Etzegaratera iritsi aurretik. Aztarna megalitikoak nonahi ikusten diren parajeetan, “izotz handiarekin, eguzkia izan genuen lagun, haize finari ere aurre egiteko”. Guztia Pirinioak, Beriain, Aralar eta Aizkorri mendisokak begi aurrean zituztela.

Hurrengo irteera hilaren azken zapatuan izango da, Deba Bailarako Ibilbidearen laugarren etapa egiteko: Kanpazarretik Aramaioraino 14 kilometroko ibilbidea egingo dute, bidean 1.120 metroko Udaltax gaindituta. Izena Deporren bertan eman daiteke (943201904).

Zailtasun maila ezberdina

Mendi-irteera gehienak egun batekoak dira, zapatuetan egitekoak. Irteera horien barruan

sartzen dira aipatutako GR-282 Artzaintzaren Ibilbidearena eta Deba Bailarako Ibilbidearena: lehenengokoaren lau etapa osatuko dituzte aurten eta bigarrengoaren bost. “Txango horietan 1.000-1.200 metrotako altueran ibiltzen gara, arazo barik 5-6 ordutan ibiltzeko gauza direnentzat egokiak”. Zailtasun maila horretakoak dira, baita ere, Iparraldera (Larhun, 900 metro) egingo dena eta Nafarroara egingo diren beste biak (Lokiz-eko parke naturalera lehenengoa, eta Goramakil (1.099) eta Gorramendirena (1.074) bigarrena). Altuera gehiago hartuko dute urriko astebukaeratarako aurreikusituzten irteeretan: Palentziakoan Peñaprietara (2.539 metro) eta Cotomañinosera (2.144) igoko dute, eta Huescakoan Guarako mendilerroan izango dira.

Teknikoki prestaketa sendoagoa eskatzen dute, bestalde, ekainean, uztailean eta irailean Pirinioetara eta Picos de Europa egingo dituzten asteburuetakoa irteerak. Horrela, ekainean (Turón de Neouville, 3.035 metro) eta uztailean (3.000 metroko Ibonak)

Hurrengo irteera hilaren 29koa da, Deba Bailarako Ibilbidearen laugarren etapa

egingo dituzte Pirinioetan; eta uztailean (Torrecerrero, 2.650 metro) eta irailean (Peñasanta, 2.596) Picos de Europa egitekoak direnei dagokienez. Badira beste irteera batzuk ere teknikoki gutxieneko prestakuntza eskatzen dutenak, Mugarrako ertzearena kasu, eta Palentziako Espigüeteko (2.451).

Mendi Jardunaldiak

Klubeko mendizaleek gogo gehiagorekin itxaroten duten txangoetako bat Aste Santuko bost egunetakoa izaten da. Aurten Lleidak Pirinioaurreko lurretan izango dira, San Llorenç de Morunys mendizerrako gainak igotzeko asmotan: Serra de Busa, Mola de Lord, Serra del Verd, Serra d' Ensija. .

Mendiko eskia maite dutenentzat, bestalde, “aurreko urteotako formularekin jarraitzeko asmoa dutela” diote antolatzaileek, martxoko asteburu oso bat espezialitate horri eskaintzeko (aurten 12/13ko asteburu izango da). Eta traila maite dutenentzat ere ez dira faltako KKT-rekin (Kalamua Korrikalari Taldea) elkarlanean antolatuko dituzten hiru irteerak: Udaberri-trail, Udazken-trail eta Gabon-trail. Kale egingo ez duten bezala haizulo batera egindako bisitaldiak eta irteera pare batean ospatuko dituzten elkartasun-bazkariak: sagardotegian otsailean eta urteko azken irteerakoa abenduan.

Azkenik, urteroko jardunaldiek ere bere tartea izango dute egitarauan: Mendi Jardunaldiak martxoan kokatuko dira, betiko lez, Bilbao Mendi Film Festivalen saritutako pelikula onenen proiektioarekin, ahaztu barik aste horretan, eta agenda osatuz, oraindik prestatzen diharduten hitzaldi eta kursoekin. Jardunaldi Mikologikoek ere bere sasoa izaten dute eta, betiko moduan, urrian izango dute tartea (22/23ko asteburu).

Garaipenez betetako asteburua Urbat-Urko tronik waterpolo klubarentzat

>>> Bost partidutik lau irabazi eta bosgarrena berdinduta amaitu da Eibarko waterpolo klubaren uzta azken asteburuan. Senior mailan, gizonen lehen taldeak 11-5 irabazi zion Larrainari Orbeakoek une oro kontrolpean izan zuten partiduan eta goian dauden sei taldeen arteko borrokari eusten diote. Emakumezkoen taldea 1-14 gailendu zitzaion Barakaldori, inolako arazorik sortu ez zion neurketan. Eta, asteburuko partidurik zirraragarrienean, gizonen bigarren taldeak hamarna berdindu zuen Ses-

tao B taldearekin; aurrekoaren adibide da azken hamar segundotan partidua erakutsi zituen alternatibak, Urbateko langa bati Sestaoko beste batek jarraitu ziolako, azkenean Urbatekoen makila batekin amaitzeko. Kadete mistoen mailan, eibartarrek 3-13 irabazi zuten kanpoan, Lautadaren igerilekuan. Eta, azkenik, haur mistoetan, Urbatekoak Lautada baino gehiago izan ziren Orbeako igerilekuan jokatuako neurketan, 14-6 irabazteko. Orbeako eskola mailako taldeen progresioa begibistakoa da, beraz.



Gazteek ere azkar dihardute asimilatzen joko onaren abantailak.

Foball-zaletuaren lehen itzulia amaitu da: hiru talde aurretik

>>> Feredu Bar EzDok (24 punturekin), Garajes Garcia (21ekin) eta Bar Txoko (20ekin) dira aurrera jo eta liga irabazteko aukera gehien dituzten taldeak. Bar Txoko hautagai handienetako izan daiteke, gainera, Covid-a dela eta lehenengo itzuliaren bi partidu ez dituelako jokatu oraindik: hor jokoan izango diren sei puntuek lidergoa ere eman diezaiokete. Durango laugarren sailkatuaren aurkakoa eta JMR Tanke-

mans-ekin pendiente duena dira oraindik jokatu ez diren neurketak. Azken jardunaldian, bestalde, Fereduk 6-1 irabazi zion Chic taldeari, JMR Tanke-mans-ek 2-0 Bali Center Sports taldeari eta Adahi Eraieder-ek 4-3 Ipur Sagardotegiari, Garajes Garcia eta Bar Banaka L. Ruedaren artekoa banako berdinketarekin amaitu zen bitartean. Covid-aren eraginez Durango eta Bar Txokoren artekoa bertan behera geratu zen.



Txirrindularitzako probetako helmugak Toribio Etxebarria kalera itzuliko dira aurten

>>> Erabaki hori jakinarazi zuten aurreko zapatuan Eibarko Txirrindularitza Elkartek egindako urteko batzar orokorrean. Elkartek iaz antolatutako probek helmuga gehienak tokiz aldatu zituzten, Covid-aren aurkako neurriei jarraituta, eta Azitaingo poligonora eramane zituzten azken urteetan T. Etxebarrian amaitzen zirenak. Valenciaga Oroitzarrea eta emakumezkoen Eibar Hiria Sari Nagusia izan ziren bakarrak Azitainen izan beharrean Arrate gainean amaitu zirenak; horiek izango dira, prezski, aurten ere euren iazko helmugei eutsiko dietenak.

Otsailaren 20an Udaberri kontzertuaren XIII. edizioarekin hasiko den Eibarko Txirrindularitza Elkartearen

aktibitateen egutegia honela geratzen da: otsailaren 27an junior mailako 44. Udaberri Saria jokatu da, apirilaren 10ean afizionatuen mailako elite eta 23 urtetik azpiko 51. Valenciaga Oroitzarrea, maiatzaren 8an UCI mailako emakumezkoen 4. Eibar Hiria Sari Nagusia, maiatzaren 29an kadete mailako 5. Eibarko Txirrindularitza Elkartea Sari Nagusia, ekainaren 19an jubencil mailako 86. San Juan Sari Nagusia, guzti horiek lasterketei dagokionez. Bestalde, azken bi urteotan ezin izan diren egin beste bi ekimenei ere ipini zaie data: urriaren 2an Pedalaren edo Bizikletaren Egunaren 17. ekitaldia egingo da, eta azaroaren 26sn Txistorra Egunaren 18. edizioa burutuko.

Lehen lerroko jokalaria berria gizonen errugbi talderako

>>> Aurreko asteburuan zen jokatzeakoa, Ohorezko B mailako ligan Zarautzen aurka iragarrita zegoen partiduan, baina Unbe izoztuta zegoen eta ezin izan zuten jokatu. Santiago Gramajo argentinarra Formosa probintzian hezitako jokalaria da, Bermejo Rugby Club eta Chaja Rugby Formosa klubetan. Jokoan Gramajo balio anitzeko

lehen lerroa da, joko estatikoan eskarmentu handikoa eta kontaktuan sendotasuna duena. Asteburu honetan eibartarrek Bera Berari egingo diote bisita; hiru puntutako aldea dago sailkapenean eibartarren alde. Gaston Ibarbururen mutilek Uribealde dute aurretik puntu bakarrera eta Zarautz eta Valtecsa UBR bira.

Arrate Eibar Eskubaloiko kadete mailako nesken taldeak Gipuzkoako txapela jantzi du

>>> Ereintza Aguaplast taldeari Ipuruan 36-21 irabazita, gure herriko kadeteen mailako lehen taldeak probintziako liga irabazi zuen beste behin. Jubenil mailako nesken taldeak ere Usurbil menderatu zuen 33-20 Ipuruan jokaturako ligako azken jardunaldian eta, partidu bakarra galduta, bigarren amaitu du sailkapenean. Emakumez-

koen taldeen asteburu bikaina borobiltzeko, senior mailako bigarren taldeak bi puntu baino gehiago balio duen garaipena eskuratu zuen Legazpin, 27-28 gol batengatik irabazita. Senior mailako lehen taldeak atsedena izan zuen.

Gizonezkoen Arrate Eibar Eskubaloiko taldeei dagokienez, 1. Nazional Mailako talde



nagusiak beste garaipen bat bereganatu zuen; hori bai, aurreko neurketetan baino zailtasun handiagoarekin, azken minutuetan erabaki baitzen Ipuruan jokaturako neurketa. Ereintza Aguaplastek aurre egin zion Fernando Fernandez taldeari hasieratik eta, atsedenaldira hiru goleko aldearekin atzetik erretiratu arren, gol bakarrera hainbat minututan izan ziren bigarren zatian. Axier Gisasola izan zen goleatzaile nagusia, sei golekin. Eibartarrek lidergoan jarraitzen dute, Anaitasuna talde nafarra sei puntutara

duela eta Hondarribia eta Zaragoza zazpira. Datorren asteburuan jokatu duten lehenengo itzuliko azken partiduan, Arrate Eibar Eskubaloikoek Il Capo Hondarribia Bidasoa hirugarren sailkatuari egingo diote bisita.

Gizonezkoen bigarren taldea ere garaile izan zen Euskadiko Ligan, oraingoan jaietsiera fase berriko lehenengo partiduan: Urdaibai Isabelen kantxan 26-36 irabazi zuten eibartarrek. Azkenik, beterranoen arteko partiduan, Arrate Eibar Eskubaloiak 22-17 irabazi zion Deustori Ipuruan.



Kalamua kluba izan da domina gehien irabazi dituen estatuan

>>> Hondarribia Hotelean egin dako Euskal Judoaren Galan parte hartu zuen Eibarko klubak 11 domina eskuratu zituen Espainiako Txapelketako finalean eta, kopuru horrekin, domina gehien jasotako kluba bihurtu zen. Bestalde, Talavera de la Reina jokaturako jiu-jitsu brasi-

lian modalitateko torneoan Javi Lassak eta Josu Huartek urrezko domina bana bereganatu zuten. Eibarko klubak bere ohiko bidetik jarraituko du hasitako urtean, "judoan infantil, kadete eta juniorren parte-hartzearekin maila guztietan, jiu-jitsu espezialitateekin batera".

Herriko foball-taldeak bigarren itzulari ekin diote dagoeneko

>>> Goi mailatik hasteko, **Iberdrola Ligako** emakumezkoen taldeak 2-0 galdu zuen Betisekin azken jardunaldian eta jaietsiera-postuak bi puntura ditu. **2. Mailan** jokatzeko duen gizonezkoenak, bestalde, sailkapeneko 3. postuan dago, Vallado-

lid bigarrenarekin berdinduta, eta igoeran sartzeko borrokan jarraitzen du. Federazioko 3. Mailan jokatzeko duen **Vitoria** filiala sailkapenean erdialdean dugu, beste behin ere atzetik datorren **Eibar Urkori** igotzeko bidea oztopatzen. Ohorez-

ko Mailako talde hori Touring eta Elgoibarren atzetik dago, hirurak ihes eginda, eta berriro txapel hori irabazteko aukerarekin izango da. Preferente mailako **Urki** lan bikaina eginen dihardu eta laugarrena da sailkapenean azken jardunal-

dian Mondragon taldeari 0-2 irabazi eta gero. Eta Erregional 1. Mailako **Eibartarrak** taldeak igoera fasea hasi zuen aurreko asteburuan eta, orain arte lortutako garaipen eta berdinketa banari esker, bigarren postuan dugu bere multzoan.



Herriko bi euskaltegietan izena emateko epea zabalik dago

Eibarko euskaltegi bietan, Udal Euskaltegian zein AEK-n izena emateko epea zabalik dago, urtarrilaren 28ra arte. Udal Euskaltegia aukeratuz gero, interesdunek honako ordutegian eman dezakete izena: astelehenetik eguenera, 08:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara, eta, baxiakuan, 8:30etik 14:00etara. Udal Euskaltegian bertan eman behar da izena <https://www.eibar.eus/eu/kultura/udal-eskolak/udal-euskaltegia/matrikula/webgunearen/bidez>, 943700912 telefono

zenbakira deituta edo bertara joanda, Portaleko 2. solairura.

Gogorarazi dutenez, Eibarren erroldatuta dauden langabetu, ikasle, guraso, merkatari/os-talari, enplegatu eta 65 urtetik gorakoek %50eko deskontua izango dute matrikulan. Bestelako deskontuak ere badaude asistentziagatik edo diru-sarregatik.

Eta AEK euskaltegian izena emateko, berriz, Sostoarren kaleko 1. zenbakira joan daiteke, eibar@ae.k.eus helbidera idatzi edo 943201379 / 607534357 telefonoetara deitu.

Biolontxelo saio esperimentalak eskainiko du Eñaut Zubizarreta "Triggerrek" hilaren 27an

Eguen arratsaldean "Poliedro Vol.1-Trigger" izeneko saioa eskainiko du Eñaut Zubizarreta biolontxelo-jotzaileak (Aretxabaleta, 1992), 19:00etan Coliseo antzokian, Quico Pugés eta Jokin Garmendia musikariek eta Amaieur Luluaga dantzariarekin batera. Ohiko estiloetatik ihesi, ikasketa klasikoak eta rocketik eratorritako doinuen interpretazioak uztartzen ditu aretxabaltarrak, mundu osoko txelistengandik jaso dituen hainbat teknikarekin batera.

Biolontxeloak musika-mota berrietan duen zeregina ikeritzen duen musikariak hainbat formatu biltu ditu lan hone-

tan: txelo bakarrerako lanak, duo eta trio formatuko ikuspegi ensemblea, techno musika...

Sarrerak 5 euro balio du eta alde aurretik zein emankizunaren egunean, kontzertua hasi baino lehen, eros daiteke.



Julen Kutxa Kultur Musika egitasmoan egonaldi artistikoa egiteko aukeratu dute

Julen Leturiondo dago Julen izen artistikoaren atzean; izan ere, bere proiektu pertsonala delako. Musikari eibartarra Kutxa Kultur Musika 2022rako aukeratu dute eta zapatuan, 21:00etan, kontzertua eskainiko du Donostiako Tabakalera, Kutxa Kultur Klubean. Sarrera aurreratuen prezioa 3 eurokoa izango da eta leihatilan 5 euro ordaindu beharko da.

Gaztea izan arren, Julenek ibilbide luzea egin du Eibarko Koro Gaztean eta beste zenbait proiektutan (Parrapas errome-

ria taldean, adibidez), eta oraingoan bere proposamen artistiko pertsonalena dakarkigu, zenbait diziplina artistiko uztartu nahian (diseinua, argazkigintza, bideogintza...).

Kutxa Kultur Musika Kutxa Fundazioak sustatu duen programa da, musikaren eremuan egonaldi artistikoak egiteko. Programaren bitartez sei musika-talde edo bakarleri amateur hautatzen dituzte urtero eta babesa ematen diete euren profesionalizazio-prozesuan lagunduz.



Jabier Elorzaren "Eibarko lehenengo azterna idatzia: hiri-gutuna" hitzaldia online

Jabier Elorza historialariak Azitaingo elizaren esangura eta haren antzinakotasuna azaldu zituen 'Eibarko lehenengo azterna idatzia: hiri-gutuna' hitzaldian, Erdi Aroko hiru errege-bide garrantzitsuren elkargunea zelako eta ermitaren beraren kategoriagatik. Orain, Ego Ibarra batzordeak

bideoa igo du bere YouTubeko kanalera. Elorzak, Azitainen garrantzia azpimarratu eta hiri-gutunaren esanahia eta horrelako agirien ezaugarri nagusiak azaldu ondoren, Alfontso XI erregeak, Jaenen, 1346. urteko otsailaren 5ean eman zuen Eibarko hiri-gutunaren berezitasunak azaldu zituen.



Apirilaren 1ean ailegatuko da 22. Korrika Eibarrera

Eguaztenean ezagutarazi zuen AEK-k 22. Korrikaren ibilbidea eta, beraz, badakigu noiz pasatuko den gure herritik: apirilaren 1ean, barixakua, goizeko 09:30ean. Ermutik sartuko da eta, Eibar zeharkatu ondoren, lekukoak Elgoibarrera joko du, gero Soralezera abiatu eta Debagoienan murgiltzeko.

Aurtengo edizioa Amurrión hasiko da egun bat lehenago, martxoaren 31n eta, 2.180 kilometro egin ondoren, apirilaren 10ean ailegatuko da Donostia-ra, han amaitzeko.

“HitzEkin” da Korrikaren edizio honetarako aukeratu duten goiburua eta Pirritx, Po-

rrotx eta Marimotots pailazoei egingo zaie aitortza, “euskarenean sustapenean eragile aktibo izateagatik”. Bestalde, edizio honetako abestiaren letra Sustrai Colina bertsolariak egin du.

AEKtik jakinarazi dutenez, ibilbidearen xehetasunak (ordutegiak...) eta ekimenaren beraren unean-uneke egoera kontsultatu ahalko da gailu adimendunetarako Korrika aplikazioaren bidez (dagoeneko eskuragarri dago Android eta IOS sistema eragileen dendetan). Eta, horrekin batera, ibilbide osoa herrira eta eskualdeka ere ipini dute ikusgai www.korrika.eus webgunean.



Josué Penaren pinturak ikusgai

Gaur arratsaldean zabalduko du Josué Penak “Comales, collares, urtarokak, nábulas y otras obras” izeneko erakusketa Portalean. Otsailaren 20ra arte ikusi ahal izango den erakusketa honetan aurkezten dituen lanak 2017tik 2021era bitartean egin-

dakoak dira. Bertan erakutsiko dituen lanen bitartez artista honen ibilbidean behin eta berriz ageri den gaia, hau da, gauzen izaeraren muina pintura bihurtzearena erakutsi nahi du. Martitzenetik domekara zabalduko dute, 18:30etik 20:30era.



Danborradako kontzertua emango dute domekan Coliseoan

Eguena San Sebastian eguna izan zela eta, hori ospatzeko, danborradako kontzertua eskainiko dute domekan Usartza Txistulari Taldekoek, 12:30ean Coliseoan, metal boskoteak eta Eibarko Danborradako kide batzuek lagunduta. Ohikoa den bezala, Eibar eta beste herri batzuetako danborradetako doinuekin osatu dute egitaraua: “Diana” (R. Sarriegi), “Eibarko Herria” (Jesús M^a Sagarna), “Idiarena” (R. Sarriegi), “Eibarko Martxa” (Miguel Glez. Bastida), “Polka de Tambores” (R. Sarriegi), “Mutriku Herria” (Zezilio Pagoaga), “Comparsa de Caballería de Viejas” (R. Sarriegi), “Retreta” (R. Sarriegi), “Pantxika” (Txomin Mujika), “Hau dek hau” (Jose Azarola), “Katiuska” (Pablo Sorozabal), “Debako Martxa” (Pablo Sorozabal), “Donostiako Martxa” (R. Sarriegi) eta “Tatiago” (R. Sarriegi).

“Altsasu” antzezlanaren bertan behera

Atzo eta gaur egitekoak ziren “Altsasu” antzezlanaren emankizunak bertan behera laga behar izan dituzte, konpainiako kide batzuek COVID-19an positibo eman dutelako. Sarreraren dirua itzultzeko, erosterako orduan erabilitako kanala erabiliko da: Kutxabanken erositakoaren dirua automatikoki itzuliko da. Eta leihatilarena ohiko salmenta-ordutegian, astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era, eta funtzio-egunetan, gaurtik hasita otsailaren 28ra arte.



Museoak 15 urte bete ditu

Eibarko Armagintzaren Museoa zabaldu zutela 15 urte betetzen direla eta, urteurrena ospatzeko sarrera doanekoa izango da domekara arte. Bisita egiten dutenek, beti ikus daitekeen arma bildumaz gain, gure herriko industriari eskainitako erakusketa ere bisitatu dute, ezer ordaindu barik. Gaur eta bihar 16:00etatik 20:00etara zabalduko dituzte ateak eta domekan, berriz, 10:00etatik 13:30era.



Tok-tok, zein da? JOXE ARANBERRI



Ipuruako historia hamar argazkitan

Irudi batek mila hitzek baino gehiago esaten badu, hamar argazkik auzo baten historia kontatu dezakete? Agian ezin ezingo da guzti-guztia irudi horien bitartez islatu, baina Ipuruan jarri dituzten hamar argazkiek ondo laburtzen dute auzoak azken mendean zehar bizi izan duena. Izan ere, koloreztatutako argazki hauetan Ipuruan gertatu diren zenbait pasarte azaltzen dira.

Eibarrek 675 urte bete dituela-eta, herriko historia gogoratzeko zenbait ekintza egin dira azken urtean zehar. Oraingoan, Udal Artxi-boan arakatu, harribitxiak aurkitu ondoren eta beste iturri batzuetatik zenbait argazki eskuratu ondoren, Guardia Zibilaren koarteleko horma zaharra erakustoki bihurtu dute nortasun handiko auzoaren argazki zaharrak zintzilikatzeko.

Atzo jarri zituzten hamar argazkiak eta, bertan, lehenengo errubgi partida, Jose Eulogio Garate, San Kristobalگو jaiak, San Juanetako koadrilak, zezen plaza eta haren inguruak, txirrindularitza... islatzen dira.

Kirola protagonista

Argazkietako batean 1950eko apirilaren 23an Eibarren jokatu zen lehen errugbi partidua ikusi ahal izango da. Anglet Olympic eta Aviron Bayonnais izan ziren lehian. Eguraldiak ez zuen lagundu, baina jende-andana

batu zen ordura arte Eibarren inoiz sekula ikusi bariko kirol hura ikustera.

Kirol arloarekin jarraituz, Ipuruako foball-zelaian jokatzen hasi zen Jose Eulogio Garate izango dugu protagonista. "Zuloaga en arte y en fútbol Gárate" pegatina ezagunaren futbolaria da bera eta 1964an SD Eibarrek Unión Deportiva Cultural Chantrearen kontra 3. mailan jokatutako partidaren gogileetako bat. Nazioarteko futbol-jokalari izatera iritsi zen Garate.

Txirrindularitzak ere protagonismoa izango du, sasoi hartan Ipurua lasterketen helmuga izaten zelako. 1965eko Eibarreko Bizikleta irabazi zuen KAS taldeko kide guztiek ere bertan atera zuten argazkia: Elorza irabazlea, Anton Barrutia, Gabika, Langarika, Jiménez... Izen ezagun asko zaletuentzat Soraluzeko Kontrargi argazkitaldeak lagatako Eli Lakuesta argazkilariaren argazkian.

Lehenengo errubgi partida, Jose Eulogio Garate, San Kristobalگو jaiak... agertzen dira argazkietan



Jendea, jaiak eta zezen-plaza
Beste argazki batean dorreak eraiki aurretik zegoen paisaia ikusi daiteke. Plazaolaren argazkiak zuhaitz azpiko pasealeku luze elurtua dakarkigu gogora.

Argazki batzuetan jendea da protagonista: San Kristobalجاietan Lambrettak eskainitako hamaiketakoetan; umeak Ipurua zelaian gozaten...

Festarako aukera ere badago argazkietan. San Juanetako koadrilaren lehiaketak entzutetsuak izaten ziren 60ko hamarkadan: zezen plazara joatea eta argazkia ateratzea ezinbestekoa zen.

Eta, azkenik zezen plaza bera erdian dela, eremu zabal bat, goitik hartuta: Txaltxa Zelaiako frontoi zaharra eta Arma Probalekua; Txaltxa baserria; Abelux bizikleta-tailerra; As-telena pilotalekuaren teilatua eta ortuak; Mari Tere Munduate andereñoak zuzentzen zuen Eibarreko lehenengo ikastolaren lokalak; Capitol zinema, eta abar. ■



Aurkitu 10 DESBERDINTASUNAK irudi bi hauen artean

L
A
B
I
R
I
N
T
O
A



	6	7			4
8	9	1	4		
5		9		6	
	8			7	
	4	6	7		5
		5			1
		8		6	7
		4	1	8	2
3			5	6	

6	9	6	2	8	2	1	6	
2	8	1	0	6	7	2	0	
4	6	1	9	6	2	8	5	9
0	1	0	9	7	0	5	2	4
9	5	2	1	9	6	9	6	
0	9	2	0	2	0	0	1	
1	4	9	0	8	6	7	6	0
6	2	6	9	1	2	6	8	
7	6	9	0	1	1	9	6	

soluzioa

S
U
D
O
K
U

0	1	6	7	0	2	1	6
6	2	9	0	2	9	1	6
0	2	0	1	9	6	9	6
0	1	2	4	8	9	7	6
6	9	6	9	1	9	2	2
1	7	2	6	0	6	1	6
6	9	8	1	6	0	4	4
1	6	0	5	4	2	9	9
7	8	1	9	9	2	6	1

soluzioa

			2			7	9	4
	8					6	3	
7					1		5	
				6				
		5	4		8	9		
				7				
	9		1					8
	3	1					7	
5	2	7			4			

Urtarrilak 21 / 27

ZAPATUA 22

NEGULEKUAK

Aurretik txanda hartu behar da derrigorrez. Hitzordua hartzeko: <https://hitzorduak.eibar.eus/astelenaparkea/eu>. Errebal Plaza, San Andres eskola eta Astelena pilotalekua.

KIROLA FAMILIAN

17:30 HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

ALTXORRAREN BILA

18:30 Altxorraren Bila, 2-4 laguneko taldean jolasteko. Dohainik. Indianokua gaztelekua.



DOMEKA 23

DANBORRADA

12:30 Danborradako kontzertua, Usartza txistulari taldearen, metal boskotearen eta Eibarko Danborradako kide batzuen parte-hartzearekin. Coliseo antzokia.



KIROLA FAMILIAN

17:30 HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

DOMEKAK KIROLIAN

17:45/19:45 Kirola eta jolasak, 8-11 urte arteko haurrentzat. Ipurua kiroldegia (kantxa berdea).



MARTITZENA 25

IBILBIDE OSASUNTSUAK

10:00 Herritar guztientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkartek antolatuta. Elkartearen lokaletik abiatuta (Ardantza, 11).

TAILERRA

18:00/20:00 Midori tailerra, 16 urtetik gorakoentzat. Izen-ematea: 943200918 telefonora deituta elkarkea@etakitto.eus helbidera idatzita. 3 euro. ...eta kitto! Euskara Elkartearen lokala (Urkizu, 11 solairuartea).



EGUAZTENA 26

IBILALDIA

09:00 Saturraran-Berritxu (bazkaria eraman). Ikasten elkarteak antolatuta. Untzagako autobus geltokia (09:05ean Bidebarrietako geltokian).

EGUENA 27

HITZALDIA

10:00/12:00 "Bakardadea eta COVID. Erronkak". Hizlaria: Javier Yanguas (Psikologian doktorea). Ikasten elkarteak antolatuta. Sarrera librea. Armeria Eskola.

MUSIKA

19:00 "Poliedro Vol.1-Trigger", biolontxelo esperimentalak. Eñaut Zubizarreta (egilea), Quico Pugés, Jokin Garmendia (musikariak), Amaiur Luluaga (dantzaria). 5 euro. Coliseo antzokia.



ERAKUSKETAK

Urtarrilaren 31ra arte:

– **JULIAN RUIZ-en argazkiak** (Depor taberna)
– **"KALEAK", Fernando Solanaren argazkiak** (Portalea jatetxea)

Otsailaren 20ra arte:

– **"CORNALES, COLLARES, URTAROAK, NÁBULAS Y OTRAS OBRAS", Josué Pena** (Portalea)

ESKUALDEKO agenda

ELGOIBARREN

BERTSO-SAIO MUSIKATUA
21ean (barixakua) / 19:00
IMH-ko Museoa

Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Onintza Enbeita. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal. Musikariak: Gari Otamendi eta Ixak Arruti. Erreminta Makinaren Museoak eta Udalak antolatuta.



ANTZERKIA

21ean (barixakua) / 20:30

Herriko Antzokia

"Greenpiss", Yllana taldearekin. Aldaketa klimatikoaren inguruko lana. Sarrerak 10 eurotan eta herrikoantzokia.eus web-ean.

MUTRIKUN

PAILAZOAK

23an (domeka) / 12:00

Mutrikuko Kiroldegia

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren "Kui-kui" ikuskizun berria. Sarrerak salgai www.mutriku.eus web orrian.



Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- **Jose Luis Martinez Gonzalez.** 73 urte. 2022-1-4.
- **Julia Azucena Compañon Aguayo.** 80 urte. 2022-1-11.
- **Maria Jesus Ortega Madina.** 66 urte. 2022-1-12.
- **Jose Andres Caballero Lorente.** 64 urte. 2022-1-12.
- **Angel Garcia Urbieta.** 88 urte. 2022-1-13.
- **Enrique Garate Santa Agueda.** 94 urte. 2022-1-14.
- **Pedro Albizuri Maguregi.** 87 urte. 2022-1-15.
- **Blanca San Miguel Padilla.** 89 urte. 2022-1-16.
- **Aurora Palacio Villar.** 98 urte. 2022-1-16.
- **Amaia Juldain Kerejeta.** 86 urte. 2022-1-17.
- **Alejandra Cervero Hernandez.** 97 urte. 2022-1-18.
- **Maria Luisa Ugalde Iraolagoitia.** 90 urte. 2022-1-19.
- **Maria Codesal Alonso.** 91 urte. 2022-1-19.

Jaiotakoak

- **Maddi Blanco Bolinaga.** 2022-1-11.
- **Youssef El Bationi.** 2022-1-12.

Farmaziak

- BARIXAKUA 21**
EGUNEZ | **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- ZAPATUA 22**
EGUNEZ | **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- DOMEKA 23**
EGUNEZ | **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ASTELEHENA 24**
EGUNEZ | **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- MARTITZENA 25**
EGUNEZ | **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- EGUAZTENA 26**
EGUNEZ | **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- EGUENA 27**
EGUNEZ | **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- BARIXAKUA 28**
EGUNEZ | **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **22an:** 19:45, 22:30
- **23an:** 20:00
- **24an:** 20:30

“Vuelta a casa de mi hija”

Zuzendaria: Eric Lavaine



2 ARETOA

- **22an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **23an:** 17:00, 20:00
- **24an:** 20:30

“Delicioso”

Zuzendaria: Eric Besnard



ANTZOKIA

- **22an:** 17:00 (1 Aret), 19:45, 22:30
- **23an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **24an:** 20:30

“Agentes 355”

Zuzendaria: Simon Kinberg



ANTZOKIA

- **22an:** 17:00 (gazteleraz)
- **23an:** 17:00 (euskeraz)

“Ilargirantz”

Zuzendaria: Ali Samadi Anadi



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **IRAIA**, bixar 3 urtetxo beteko dozuzelako. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Xabiren partez!!!



Zorionak, **ANE**, eguaztenian 16 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Iraiaren partez.



Zorionak, **JULEN**, mutil haundi. 5 urte etzi!! Zure irribarriak urte askotan argittu gaittezan. Asko maitte zaittugu. Mikel, aitta eta ama.



Zorionak, **NAHIA!!** Domekan 10 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat aitta, ama eta famelixaren partez.



Zorionak, **JURGEN!** Bixar 10 urte beteko dozuz-eta! Egun bikaiña pasau! Besarkada haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **EIDEN**, atzo 5 urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **AIUR**, martitzenian 5 urte bete zenduaz-en-eta. Musu asko famelixa guztiaren eta, batez be, Izaro eta Ederren partez.



Zorionak, **LUKA**, atzo 10 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo erraldoi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Aneren eta lehengusuen partez.



Zorionak, **ION**, domekan urtiak beteko dozuz-eta! Ondo-ondo ospatu. Musu eta besarkada haundi bat lagun bat partetik.



Zorionak, **MAIALEN!!** Eguaztenian 10 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Uxueren partez!



Zorionak, **NADIA!** Martitzenian 13 urte bete zenduaz-en-eta. Milla musu guraso eta famelixakuen partetik.



Zorionak, **MANEX!** Bixar urtetxo bat beteko dozu! Musu erraldoi bat danon, eta bereziki, zure anaixa Oihanen partez.



Zorionak, **ADRIAN**, gaur 3 urte betetzen dozuz-eta. Ondo pasa eguna! Famelixa guztiaren partez.

ek!

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

Iragarki laburrak


943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisu salgai Sallabenten (Ermua). 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Pisu altua eta eguzkitsua. Bista ederrak. Dena kanpora begira. Tel. 605711422.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Garaje zabala alokagai San Pion. Tel. 652775746.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631308259.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita erresidentzietan ere. Zaintzaile ziurtagiriarekin. Tel. 642403764.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 674457727.
- Emakume euskalduna eskaintzen da zainketarako edota etxeko lanak egiteko. Autoarekin. Orduka ere lan egiteko prest. Tel. 657794652.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 641421135.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 653236030.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernetan lan egiteko. Esperientziarekin. Tel. 642846905.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 653236017.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643565742.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Orduka. Tel. 632642320.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko. Tel. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Externa. Tel. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Autoarekin. Tel. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Erreferentziak, gida-baimena eta tituluarekin. Tel. 689571882.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Orduka. Baita gauzez ere. Tel. 602490595.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679214891.

4.2. Langile bila

- Estetizista behar da. Tel. 605770226.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Dibujo Teknikoko irakaslea behar da Eibarren. Batxilergo Artistikoko I. mailarako. Tel. 664391026.
- Ingeleseko irakaslea behar da Elgoibarko akademia batean. Tel. 667261248.
- Ingeleseko partikular irakaslea behar dut Erasmus prestatzeko. Tel. 616479840.

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate sarbiderako klaseak ematen dira, goiz eta arratsaldean. Tel. 678937837.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Ohe-buru eta oinak (1'35x1'90), mesilla, komoda, sarrerako altzaria, bi silla eta zutikako mahaia (marmolezko gaineestalkiarekin) salgai. Oso merke. Tel. 627008888. Carmen.
- Egongelarako mahai handia eta erdirako mahai txikia salgai. Biak kristalezkoak eta oso egoera onean. Prezio interesgarria. Tel. 606882043.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Aurreko zapatuan mendiko guante batzuk topatu nituen Arrate inguruan. Tel. 653724549.


688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INDUSTRIAL
MANTENUA

E.I.T. ERREKONSTRUKTIOAN
MANTENUA

IAZKINEN
MANTENUA
INDUSTRIAL
MANTENUA
info@iztefide.com 943 949 80 10 00

AJT ERREKONSTRUKTIOA S.L.
Barrua, 6 - Leioa esk.

ITURGINAK

Miguel Azpiri
ITURGINA

- Konponketak
eta ordezkatzak
ITURGINTZAN
- Konponketak
eta irtenbideak
KALEFAKZIOAN

BEREHALAKO
ZERBITZUA
ematen da

635 13 38 41

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
IBARREN, Urkizu 20oa (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMOIEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 - ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

ERREKATXU, 3-
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@kristaldegia.com **ERAKUSKETA**
eta faxa: 943 203 903 Arkitzaneko Zuhia

ELEKTRIZITATEA

THELECEP

TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922 www.thelecep.com

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitaín Industrialdea, 3 H Pabillioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

baglietto

PINTORIEAK
Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioak

Errebal, 21 www.bagliettoelbar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoelbar@kaiaso.com

Tel. 667 54 89 16



KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

Aurrematrikulak

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN

Urtarrilaren 17tik 28ra



EIBAR BHI 943 89 92 21
ISASI, 37 www.eibarbhi.eus
DBH1, 2 + Gautenako gela orokorra



EIBAR BHI 943 89 92 62
JARDINETAK, 3 B www.eibarbhi.eus
DBH 3, 4 + Babilergoak + ZIG



AMAÑA 688 68 72 89



ARRATEKO ANDRA MARI 943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA
AURREMATRIKULA URTARRILAREN 17TIK 28RA
www.euskadi.eus/hezkuntza

ZURE ZAIN GAUDE

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



SAN ANDRES 943 20 79 95



URKIZU 943 88 91 47